



Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



abaildu 'eroria, indar gabea'	«Alexek irribarre egin zuen. Irribarre abaildua . Nekatua.»	(144)
adarrrik ez 'txantxarik ez'	«—Logikoa —oihukatu zuen Imanolek—. Logikoa? Joder, adarrrik ez! »	(115)
adur txar 'zorigaiztoko patua, zori txarra'	«...garai bateko adiskidantzaren izenean-edo adur txarra sumatu zuen berriro haren eta Imanolen artean.»	(197)
agondu 'arteztu, jaiki, zutitu'	«Eta hori nahi zitenan leku hauek eraiki zituztenek —pixka bat agondu zen egurrezko bankuan.»	(171)
ahitu 'agortua, gastatua'	«Asko ahiturik zeuzkan eternitateak. Barneak tenk egiten zion, eta haustear sentitzen zen.»	(59)
aladurak joa 'ezinegenez, oinazez egon'	«—Ospitaleko ohean utzi nuen, bai. Eta gero, bai, aladurak joa egon nintzen denboraldi batez.»	(222)
alamena eman 'roiloa bota, txapa eman,	«...eta saiatu egin behar nintzela sentitu nian. Kristoren alamena eman nioan. Egundoko txapa.»	(87)
aldaka 'gerri alde'	«Neskak ezin izan zuen barrenetik ateratzen zitzaion aldaken mugimendu uhindua ekidin. Mutilak Mirari masturbatzen jarraitu zuen pixka batean.»	(179)
alde 'diferentzia'	« Aldea , alde ia bakarra, hauxe duk: ostiakoa hartzeko prest hagoen edo ez.»	(73)
alderrai 'batetik bestera dabilena, jitoan'	«Lagunak taberna barruan zeuden, milaka zombiren artean zonbi. Gorputz alderraien mareak lagun taldea fisionatu zuen...»	(126)
antzeratu 'imitatu'	«Hire osaba ez duk baboa. "Ba al dakizu, kutuna?" —Imanolen osabaren sudur-ahotsa antzeratu zuen.»	(41)
apeta 'kapritxoa, desio bitxia, nahiera'	«...katana bat (...) Mirariren apeta hippyetako —edo ekialdetarretako, edo zena zelako— beste bat.»	(97)
artegatasun 'urduritasuna, ezinegona'	«Hala eta guztiz, artegatasun ukitu batez zabaldu zuen atea, zarataren baten zain-edo.»	(111)
atezuan egon 'larri, tentsioan'	«—Honbre, Imanol, zer... moduz? Alazne atezuan zegoela iruditu zitzaion mutilari.»	(75)
atoan 'bat-batean, segituan'	«Mirariren gorputzaren mira egin zitzaion atoan . Mirariren azal sotilarena.»	(63)
aurrerakin 'alde zurretik, aurretiz jakitea'	«...etorri zitzaion gogora (...) beldurrezko film bateko aurrerakin gordina balitz bezala...»	(75)
auresangarri 'alde zurretik esateko modukoa'	«Hain ezagunak egiten zitzaizkien garai batean enigma paregabeak zirenak; hain auresangarriak askotan.»	(59)
auskalo 'batek daki'	«— Auskalo . Prestatzeko edo. Gainera, deliberatu nuen horixe zela onena. Zuei ezer ez esatea.»	(224)
aztoratu 'kezkatu, asaldatu'	«Alazne aurrean jarri zitzaion, aztoratu antzean.»	(18)
ba al gara edo zer? 'zer, prest zaude ala zer?'	«—Alex! —Imanolen ahotsa zen. Autotik ari zitzaion—. Alex: ba al gara edo zer? Ez dugu irratiarekin asmatzen!»	(22)
babo 'inozoa, leloa'	«Hire osaba ez duk baboa . "Ba al dakizu, kutuna?" —Imanolen osabaren sudur-ahotsa antzeratu zuen.»	(41)
bainoago 'baino gehiago'	«Leku baketsuagoa izango zen hura, iritzi zion, eta Alaznek hori beharko zuen, ziur asko, tabernetako iskanbila bainoago .»	(38)
balizko 'litekeena, posiblea'	«Poesiaren lore urdinak zaldarrekin batera galdu zituen. (...) Eta bizitzaren balizko poesia, trasteleku ilunean baztertua.»	(61)
barealdi 'lasaitasunezko egoera'	«Haren atzetik irtetear egon zen. Baina pentsatu zuen hobe zuela geldirik egon. Barealdia itzuli bitartean, behintzat.»	(58)
barrenkor 'barrura sartzen dena'	«Hegada baten soinua entzun zen; txilio barrenkorra , ondoren. Galdutako kaioren bat, agian.»	(103)



begiz jo 'antzeaman, fijatu'	«"Erabateko txorimaloa", pentsatu zuen Imanolek, zeharka begiratu. Ukalondoan eman zion Juleni, tipo hura begiz jotzeko .»	(43)
behingoz 'halako baten'	«Ai, Julen! Mesedez, utzidazu lo egiten. Behingoz .»	(63)
behintzat 'bederen, behinik behin'	«Haren atzetik irtetear egon zen. Baina pentsatu zuen hobe zuela geldirik egon. Barealdia itzuli bitartean, behintzat .»	(58)
bihozkada 'premonizioa, sentimendua,	«Zerbait izugarria gerta zitekeen bihozkada zeukan. Zer, ordea?»	(61)
carpe diem 'bizi eguna'	«— Carpe diem! —oihukatu zuen. Hainbat esalditako errepertorioa zeukan gordeta horrelako egoeratarako. Bere burua motibatuzko erabilitako leloak	(31)
damutu 'sentitu'	«— Hirekin jardutea alferrik duk, hori bazekiagu —Alexek xaxatu egin nahi zuen—. Baina gero damutu egingo zaik.»	(31)
deiadar egin 'oihu egin, agiraka egin, errieta'	« Deiadar egin zuenean zazpi trumoik jo zuten burrunba.»	(9)
deliberatu 'erabaki'	«— Auskalo. Prestatzeko edo. Gainera, deliberatu nuen horixe zela onena. Zuei ezer ez esatea.»	(224)
distiratsu 'dirdaitsua, dirdiratsua'	«Beste aingeru ahaltu bat ikusi zuen zerutik jaisten, hodeiz inguratua: ortzadarraren buru inguruan, aurpegia eguzkia bezain distiratsua ...»	(9)
doi-doi 'ozta-ozta, justu-justu'	«Han ez zegoen bazterterik. Auto bakarra jaitsi zitekeen, eta doi-doi . Nolanahi ere, arazorik gabe iritsi ziren herrira.»	(102)
egundoko 'itzela, sekulakoa'	«...eta saiatu egin behar nintzela sentitu nian. Kristoren alamaena eman nioan. Egundoko txapa.»	(87)
ekidin 'saihestu'	«Neskak ezin izan zuen barrenetik ateratzen zitzaion aldaken mugimendu uhindua ekidin . Mutilak Mirari masturbatzen jarraitu zuen pixka batean.»	(179)
eldarnio 'sukar zorabioa'	«— Jakina —ulertu zuen Haritzek—. Eskizofreniak eldarnioak sorrarazten ditu.»	(221)
enbarazuak joa 'urduritasunez, zerbaitek traba egin'	«Batera eta bestera begiratzen zuen, baina begirada asko jaso gabe. Enbarazuak joa iruditu zitzaion Mirariri.»	(196)
errieta egin 'agiraka egin, gogor egin'	«Alexi behin eta berriro errieta egiten zioten arren, ez zuen sekula ikasten. Edo ez zuen ikasi nahi.»	(173)
erronkari 'desafio edo mehatxu eginez'	«Imanolek min handia egin zidalako —begirada jaso zuen, ia erronkari .»	(90)
estutasun 'lotura estua, hurbiltasuna'	«Zuen artean estutasuna baino ez duk gelditzen, esan diat, baina noizean, oraindik ere, elkarren hutsa sentitzen duzue.»	(228)
farfuilatu 'ozta-ozta ahoskatu hitzak'	«— Mesalina —esan zuen neskak—. ¿No te gusta? — Sí, sí. Está bien. Bien — farfuilatu zuen Imanolek.»	(47)
furfuria 'haserre bizia, haserrezko	«Denak denek kontra. Furfuria . Itsukeria.»	(131)
gaixotasunak jota 'gaixotasunak harrapatuta'	«— Amodioaren gaixotasunak jotakoari , dena nahasi!»	(71)
galgarri 'galbidea ekar dezakeena'	«Alex. Gaua eta eguna, hotza eta beroa, yin eta yang. Maremagnum eroa eta galgarria .»	(101)
gaumin 'gau bete'	«Oraindik ez ziren zazpiak, baina ia gaumina ematen zuen: oso laino beltzak zebiltzan.»	(102)
geisha 'japoniar emak. dantzar. eta abeslaria'	«...bere ibilera delikatu hura zela medio, panpina itxura zuela aurpegiratzen zioten askotan. Geisha hauskor baten moldea.»	(17)
gertu 'prest'	«Baina ez bakarrik fisikoa: mutilekin lehiatzen ohitua, beti zeukan zirtoa edo ironia gertu .»	(19)
goitzen 'ezizena, izengoitia'	«Hasieran haserretu egiten zen goitzen hori adituz gero, baina denborarekin Julenek berak ere normalizat hartzen zuen ja.»	(15)



grina 'gogo bizia, jorana, irrika bizia'	«Pizturiko odolaren mintzaira entzuten hasia zen berriro, eta bazekien zer esan nahi zuen horrek: grinak zirikatutako itsualdia; arriskua.»	(25)
guraize 'artaziak'	«Baina horrela behintzat ez din zalantzarako lekua uzten –bi eskuekin irudizko guraizeak antzeratu zituen. Airea ebaki zuen–.»	(203)
habe 'zutabea, zutoina'	«...aingeru ahaltzu bat ikusi zuen (...): ortzadarra zuen buru inguruan, aurpegia eguzkia bezain distiratsua eta zangoak suzko habeak bezalakoak.»	(9)
hauskor 'apurkorra, fragila'	«...bere ibilera delikatu hura zela medio, panpina itxura zuela aurpegiratzen zioten askotan. Geisha hauskor baten moldea.»	(17)
hausnarrean 'gogoetatzen, pentsatzen'	«Bi segundo egon zen hausnarrean , bilatzen jarraitu ez jarraitu.»	(23)
hautemanezin 'igarri ezina, nabaritzen ez dena'	«Alex zurrun geratu zen bat-batean. Dardara labur bat izan zuen. Segundo bat izan zen. Ia dardara hautemanezina .»	(140)
herbal 'elbarria, ahula'	«Hormak harri trinkoz egindakoak ziren. Argiek, hori eta herbal , kandela txiki baten ganora zuten beren ahulean.»	(194)
herratu 'amorratua, herraz betea'	«Gorila baten moduan-edo pentsatu zuen Imanolek, hari begira; gorila herratu eta nahasi baten moduan.»	(37)
hitano 'lagunarteko hizkera moldea'	«Alaznek ere hitanora pasatzea erabaki zuen.»	(212)
hizpide 'mintzatzeko gaia'	«Bai –esan zuen Mirarik. Ez zen bere buruaz fio; beste hizpide bat behar zuen, ezkutatzeko–. Nola zen herria?»	(101)
ildaxka 'ildo edo marratxoa, kanaltxoa'	«Hala eta guztiz ere, oskolaren bihotzak, haren koloreak, ildaxkek , akatsek edo gogortasunek...»	(185)
ile-xerlo 'ile multzotxoa'	«Hamaika koloreko ile-zintari ukitu batzuk eman zizkion. Ile-xerlo bihurri batek ihes egin zion.»	(25)
imintzio 'keinua, jestua'	«—Zain? Zeren zain? Hire zain? –barre egin nahi izan zuen Alexek. Erdibideko imintzio batean geratu zitzaion.»	(22)
iradoki 'aditzera eman, sugeritu'	«Antza denez, eta iradoki didanez, erdi haserre edo gelditu zituan.»	(82)
iritzi (zerbaiti) 'iruditu, pentsatu'	«Leku baketsuagoa izango zen hura, iritzi zion, eta Alaznek hori beharko zuen, ziur asko, tabernetako iskanbila bainoago.»	(38)
irrikor 'burlaizez, burlaizka'	«—Pairamen eskasekoa haiz, e? Ai, hik ere Alex nahi huen –aurpegiratu zion Arantxak, irrikor . Ingurura begiratu zuen–. Non da Haritz?»	(149)
irtetear egon 'irtetekotan egon, puntuan'	«Haren atzetik irtetear egon zen. Baina pentsatu zuen hobe zuela geldirik egon. Barealdia itzuli bitartean, behintzat.»	(58)
iruzkin 'analisi'	«Sarritan esaten zioten kontuz ibiltzeko galderak eta iruzkinak egiterakoan; bere lañotasunean (...) takateko mingarriak botatzen zituela.»	(118)
iskanbila 'astrapala'	«Leku baketsuagoa izango zen hura, iritzi zion, eta Alaznek hori beharko zuen, ziur asko, tabernetako iskanbila bainoago.»	(38)
itsumustuan 'ustekabea, espero ez dela'	«—Joño! –jaurti zuen. Serio jarri zen itsumustuan eta neskari jaregin zion une batez–. Imanol?»	(35)
jalgi 'atera, kanporatu'	«Bere barne-katalogoko irribarre atseginenak eta alaienak jalgitzen saiatu zen Sonia, hitz egiten hastearekin batera.»	(140)
jaregin 'askatu, libratu, soltatu'	«—Joño! –jaurti zuen. Serio jarri zen itsumustuan eta neskari jaregin zion une batez–. Imanol?»	(35)
jarraitu ez jarraitu egon 'zalantzatan egon jarraitu ala ez'	«Bi segundo egon zen hausnarrean, bilatzen jarraitu ez jarraitu .»	(23)
jitoan 'noraezean, galduta bezala'	«Paperetatik irteteak, ordea, iparrorrazik gabeko marinel bihurtzen zuen askotan. Eta jitoan sentitzen zen.»	(15)
kalamatrika 'eztabaida'	«—Ez nauk ari, ez. Eta kito kalamatrika . Gatozen harira...»	(232)



karkara 'barre zantzoa'	«Kanpoan, tximista batek zerua argiztatu zuen. Haren jarraian etorri zen trumoiak itzelezko karkara baten taxua izan zuen, latza eta mehatxuzkoa.»	(193)
karranpa eragin 'uzkurdura sortu / (agujeta)'	«Alexen eskua gerrian sumatzeak karranpa eragin zion Mirariri. Ez zuen nahi.»	(167)
katatonia 'jarrera zurruna, negatiboa'	«Haritzek ez zion erantzun. Katatoniak jota bezala zegoen.»	(150)
kiboa atera 'ahotsaren doinuan huts (gallo)'	«— Mesalina? — kiboa atera zitzaion Imanoli izena errepikatzean.»	(47)
kitzikatu 'zirikatua, mugimenduan	«Haren itzal kitzikatua handiagotu eta txikiagotu egiten zen, bilakaera etengabea, oraintxe gela erdia hartuz, oraintxe erabat ezkutatuz.»	(53)
konturatzerako 'ohartu orduko, baino lehen'	«Egun gutxi batzuk izango ditun. Lauzpabost edo. Konturatzerako pasako ditun.»	(89)
kutun 'majotxua, laztantxoia'	«Hire osaba ez duk baboa. "Ba al dakizu, kutuna ?" —Imanolen osabaren sudur-ahotsa antzeratu zuen.»	(41)
lain 'beste, nahikoa'	«Kontzientzia arintzeko lain izan zen.»	(240)
lañotasun 'inozentzia'	«Sarritan esaten zioten kontuz ibiltzeko galderak eta iruzkinak egiterakoan; bere lañotasunean (...) takateko mingarriak botatzen zituela.»	(118)
larrua jo 'larrutan egin, txortan egin'	«— Adibidez...? Ba, zer zakiat ba nik: noiz jo behar den larrua . Edo zein den unerik egokiena...»	(115)
lelo 'esaldi egina, estribillo'	«— Carpe diem! —oihukatu zuen. Hainbat esalditako errepertorioa zeukan gordeta horrelako egoeretarako. Bere burua motibatuzko erabilitako leloak	(31)
malkar 'pikoa, aldapatsua'	«Dantek irudikatutako infernuaren imitazio nabar eta malkarra .»	(125)
marrantak jo 'katarroa hartuta'	«Ez zaitut sekula ikusi —erantzun zion berriro marrantak jotako ahotsak.»	(149)
marraska 'katuen oihua, oihu lazgarria'	«Agian animalia larrutzen ariko ziren, botatzen zituen marraskengatik . Ez zen lehenengo aldia izango. Aingerutxoak.»	(64)
mira egin 'mirespena sortu'	«Mirariren gorputzaren mira egin zitzaion atoan. Mirariren azal sotilarena.»	(63)
muturtu 'haserre, muturra luze'	«— Noski —emakumea jaiki, eta gelatik irten zen. Bizitasunez eta muturturik . Julenek logelara sartzen entzun zuen.»	(58)
nabar 'kolore askotarikoa'	«Dantek irudikatutako infernuaren imitazio nabar eta malkarra.»	(125)
nahimen 'borondatea'	«Ez zuen sekula hainbesteraino galdu kontrola. Grina itsugarri batek erabat baliogabetu zion nahimena .»	(214)
nonbait 'antza, itxuraz'	«Txolarre suizida bat ia lurra jotzeraino amildu zen, bertikalean eta ziztuan, baina azken unean bizirik irautea erabaki zuen, nonbait , eta zerurako bidea	(109)
oldartsu 'kementsua, ausarta, erasokorra'	«Geldiezina eta oldartsua , hilabete eskasa zen hamazortzi urte bete zituela, eta ospatu egin nahi zuen.»	(14)
ortzadar 'ostadarra, Erromako zubia'	«Beste aingeru ahaltzu bat ikusi zuen zerutik jaisten, hodeiz inguratua: ortzadarra zuen buru inguruan, aurpegia eguzkia bezain distiratsua...»	(9)
ospa egin 'ihes egin'	«Sartu orduko aldatu zitzaien aurpegia alabaina, eta zeramaten kemen guztiak berehala egin zien ospa .»	(33)
pairamen eskaseko 'sufritzen ez dakiena'	«— Pairamen eskaseko haiz, e? Ai, hik ere Alex nahi huen —aurpegiratu zion Arantxak, irrikor. Ingurura begiratu zuen—. Non da Haritz?»	(149)
partitu 'banatu'	«Jendeak atzera eta aurrera bultzatzen zuen (...). Ukalondokada pare bat partitu behar izan zuen aurreratzeke.»	(142)
patatakoa eman 'bihotzekoa eman'	«— Joder —asmatu zuen esaten Julenek—. Ba, hurrengoan abisatu; patatakoa emango ziguk eta.»	(23)



prozac 'botika, animoa goratzekoa'	«Egin behar zuena egiten zuelako konfiantzak prozac guztiak baino botere handiagoa zeukan.»	(62)
pusketaka 'zatika, txatalka'	«Mirari garagardo botilaren etiketa pusketaka kentzen ari zen.»	(89)
segituan 'berehala, atoan'	«...ibilaldi laburra zuten Erdialdeko geralekutik. Segituan iritsi ziren.»	(111)
soraiotasun 'sentiberatasunik gabe, nagü bezala'	«— Mirari! Zoratu egin al zara? —jaurti zion Julenek. Mirariren soraiotasunez jabetu zen.»	(244)
soslaia 'ertza, perfila'	«Itzal trinkoz beteta zegoen lekua. Soslaian begiratzuz gero, forma bizidunak zirela pentsa zitekeen.»	(24)
sotila 'dotorea, ederra'	«Mirariren gorputzaren mira egin zitzaion atoan. Mirariren azal sotilarena .»	(63)
takateko 'kolpea, sendoa'	«Sarritan esaten zioten kontuz ibiltzeko galderak eta iruzkinak egiterakoan; bere lañotasunean (...) takateko mingarriak botatzen zituela.»	(118)
tematu 'egoskortu, setatu, temati jarri'	«— Eta dirua? Gainera hori: ez dugu dirurik! — tematu zen Haritz, aitzakiaren baten bila.»	(16)
tempus fugit 'denbora ihes doa, pasatzen ari'	«Tira, Bronto. Tempus fugit! »	(33)
tenk egin 'tira egin, tentsioa eragin'	«Asko ahiturik zeuzkan eternitateak. Barneak tenk egiten zion, eta haustear sentitzen zen.»	(59)
toka 'hitanoa, lagunarteko hizkera'	«— Aizu, Alazne, zergatik egiten didazu orain zuka? —neskak toka utzi zuenean, mutila ere zukara pasatu zen, baina konturatu gabe hasieran.»	(137)
trasteleku 'ganbara, trasteroa'	«Poesiaren lore urdinak zaldarrekin batera galdu zituen. (...) Eta bizitzaren balizko poesia, trasteleku ilunean baztertua.»	(61)
trumoi 'ostotsa'	«Kanpoan, tximista batek zerua argiztatu zuen. Haren jarraian etorri zen trumoiak itzelezko karkara baten taxua izan zuen, latza eta mehatxuzkoa.»	(193)
txapa merke 'matraka, erretolika jasanezina'	«Joder. Hori duk hori txapa merkea .»	(73)
txilibitu 'txilina, zakila'	«Neskaren deskuidua edo nahita eginda, hori ez zekien, baina txilibitua barruan zen.»	(154)
tximista 'inisia, inuztaria'	«Kanpoan, tximista batek zerua argiztatu zuen. Haren jarraian etorri zen trumoiak itzelezko karkara baten taxua izan zuen, latza eta mehatxuzkoa.»	(193)
txintik ere ez 'hitz bat bera ere ez'	«...irudizko kreamilera batez itxi zuen ahoa. — Txintik ere ez . Edo saiatuko naun behintzat.»	(19)
txolarre 'artaxoria, kaleetako txoria'	« Txolarre suizida bat ia lurra jotzeraino amildu zen, bertikalean eta ziztuan, baina azken unean bizirik irautea erabaki zuen, nonbait, eta zerurako bidea	(109)
txorimalo 'pepeloa, (fantasma)'	«"Erabateko txorimaloa ", pentsatu zuen Imanolek, zeharka begiratzuz. Ukalondoan eman zion Juleni, tipo hura begiz jotzeko.»	(43)
uhindu 'olatu itxurakoa'	«Neskak ezin izan zuen barrenetik ateratzen zitzaion aldaken mugimendu uhindua ekidin. Mutilak Mirari masturbatzen jarraitu zuen pixka batean.»	(179)
ume mokordo 'infantila, txolina'	«Munduan bera beste inor ez zegoela uste zuen ume mokordoren bat, akaso.»	(61)
urardotu 'nortasunik gabea, nahasia'	«Baina etsita zegoen ameslari urardotua baizik ez zela, nahi eta ezinaren irudi bakartia.»	(18)
xaxatu 'zirikatu'	«— Hirekin jardutea alferrik duk, hori bazekiagu —Alexek xaxatu egin nahi zuen—. Baina gero damutu egingo zaik.»	(31)
yin eta yang 'positiboa eta negatiboa'	«Alex. Gaua eta eguna, hotza eta beroa, yin eta yang . Maremagnum eroa eta galgarria.»	(101)
zabarregi 'batere txukuna ez dena'	«— Ez duk hori, Alex. Ostia —kexatu zen Imanol—. Zabarregia haiz batzuetan.»	(113)



zaineldu 'bihotz zimikoa, atximurdura'	«Juleni zaineldua egin zitzaion ariman. Oroitzapenaren oinaze isilak jo zuen...»	(245)
zaldar 'aurpegiko, azaleko garua'	«Poesiaren lore urdinak zaldarrekin batera galdu zituen. (...) Eta bizitzaren balizko poesia, trasteleku ilunean baztertua.»	(61)
zangalatraba 'hankak zabalik'	«Bat-batean jaiki eta mutilaren izterren gainean eseri zen, zangalatraba . Imanolek ez zuen halakorik espero...»	(138)
zapuztu 'hondatu, hankaz gora bota'	«Arantxak ez ote zuen (...) borroka dialektiko batean amaituko, eta berak Imanolekin hitz egiteko zeukan asmoa zapuztuko .»	(19)
zargalduta 'zaharkituta eta itsusi'	«Besteek, Alex zela jakin ez balute, ez zuketen ezagutuko. Zeharo zargalduta zegoen, zurbil-zurbil.»	(225)
zarratada 'tarratada, urradura'	«Une batez, zarratada sentitu zuen arima urratzen. Errealitatera itzultzeraren behartu zuen bere burua. Minak min.»	(211)
zaugarri 'zauritzen duena'	«Imanolek indarrrik gabe gelditzen zela sentitu zuen une batez, geratzen zitzaion bizi-energiak leihotik ihes egingo balio bezala, zaugarri eta	(221)
zazpi-zazpiak 'zazpiak puntuan'	«Orduan aztertu zuen. Zazpi-zazpiak ziren.»	(102)
zeharo 'gutziz, erabat'	«Besteek, Alex zela jakin ez balute, ez zuketen ezagutuko. Zeharo zargalduta zegoen, zurbil-zurbil.»	(225)
zer gerta ere 'badaezpada'	«Susmo txarra zeukan neskak, baina ez zuen ezer esan nahi, zer gerta ere .»	(33)
zer gerta ere 'badaezpada'	«Lehenbailehen egin behar nian, zer gerta ere . Elkartu egin behar zintuztedan.»	(231)
zezeldu 'baldarki ahoskatu'	«— Hi mutila haiz, ezta? — lortu zuen zezeltzea . — Hara, hara. Eta? »	(150)
zirrara 'pilpira, emozioa'	«Gauak zirrara zekarren.»	(13)
zirto 'ironia'	«Baina ez bakarrik fisikoa: mutilekin lehiatzen ohitua, beti zeukan zirtoa edo ironia gertu.»	(19)
ziurgabetasun 'inseguritatea'	« Ziurgabetasunaren estualdiak hartu zituen Alexen lagunak.»	(15)
zupada 'zurrupada'	«Imanolek irribarre egin zuen. Zupada bat eman zion porroari.»	(69)
zurruntasun 'gogortuta bezala'	«Emozioak jota zegoen, abentura erromantiko baten erdian, eta ez zuen ulertu Amaiaren eta Arantxaren bat-bateko zurruntasuna .»	(34)